# Ama eskolan idatzia lantzeko proposamen bat

Kantuño bat idatzi jadanik ezagutua den kantuño batetik abiatuz

# 1. urratsa: kantuñoa ikasi

**Sagu ttiki sagu maite**

Sagu txiki, sagu maite

Zilotxoan gorde zaitez.

Gatuak ikusten bazaitu

Kriskras, kriskras,

Janen zaitu!

*Ez nau jango!*

*Jango zaitu!*

*Ez nau jango!*

*Jango zaitu!*



https://www.youtube.com/watch?v=nvv8FVKDZVg

# Kantuñoa ikasi







Ikus:

- Démarches pour apprendre des comptines, formulettes et jeux de doigts: https://cache.media.eduscol.education.fr/file/Langage/18/9/Ress_c1_langage_oralecrit_demarche_apprendre_529189.pdf

- Mémoriser une comptine avec l'aide d'une marionnette: http://cache.media.education.gouv.fr/file/Langage/18/5/Ress_c1_langage_oralecrit_comptines_annexes_529185.pdf

# Kantuñoa ikasi eta hitzak bereizi

Kantuñoa erraiten den bitartean:

- gorputzarekin biziarazi: hitz bakoitzarentzat uztaian salto bat eginez
- hitza ordezkatu: harrabots, onomatopeia, jestu baten bitartez
- hitzak txalotu
- musika tresna batekin erritmoa eman
- Irakasleak erraten duena osatu hitz ona emanez: « *Sagu* …, *sagu* … »

…

Ikus:
Pour préparer l'apprentissage de la lecture et de l'écriture à l'école maternelle p. 20
https://cache.media.eduscol.education.fr/file/maternelle/41/4/Guide_phonologie_1172414.pdf

# Kantuñoa ikasi eta hitzak bereizi

Ikasleek Kantuñoa badakitelarik, irakasleak beste bertsio bat proposatzen die aldaketekin: pasarte batzu kenduz, aldatuz, hitzak aldatuz.

Entzun eta gero, ikasleek okerrak nun diren erraten dute.

Ad:

*Xori txiki xori maite*
*zilotxoan gorde zaitez*

*Sagu txiki, sagu berde*
*Etxean gorde zaitez*

# <u>2. urratsa:</u>

# Kantuñoa idatzi ikasleek lotura egin dezaten ahozkoa eta idatziaren artean

Ad: Irakasleak Kantuñoaren testua idazten du, ikasleek diktaturik.

(ikus dok. Spectacle de l’écrit)

# 3. urratsa:
# hizkuntza unitateak identifikatu



Irakasleak testuaren behaketa bideratzen du, ahoskatzen duena testuan erakutsiz.

- Ikasleek errezitatzen duten bitartean, irakasleak bere erhiarekin hitzak erakusten ditu testuan.
- Ikasleak ditu hitzak testuan segitzen.
- Irakasleak galdegiten dio ikasle bati erraten dituen hitzak erakustea testuan.
- Ikasleak hitzen azpian sinbolo bat ematen du…

Ikus:
Pour préparer l’apprentissage de la lecture et de l’écriture à l’école maternelle p. 20
https://cache.media.eduscol.education.fr/file/maternelle/41/4/Guide_phonologie_1172414.pdf

# 4. urratsa:
# Idazte proiektua argiki erran (esplizitatu)

***Sagu txiki sagu maite Kantuñoa ikasi dugu. Orain, Kantuñoa berri bat asmatuko dugu beste hitz batzuk xerkatuz eta erabiliz.***

# Idazte proiektua argiki erran (esplizitatu)

Materiala: testuan aldatu behar diren hitzak inguratu ditu irakasleak.

**1.maila** edo **2.maila**

**1.maila**

Sagu txiki , sagu maite
Zilotxoan gorde zaitez.
Gatuak ikusten bazaitu
Kriskras , kriskras ,
Janen zaitu !
*Ez nau jango !*
*Jango zaitu !*
*Ez nau jango !*
*Jango zaitu !*

**2.maila**

Sagu txiki , sagu maite
Zilotxoan gorde zaitez.
Gatuak ikusten bazaitu
Kriskras , kriskras ,
Janen zaitu !
***Ez nau jango !***
***Jango zaitu !***
***Ez nau jango !***
***Jango zaitu !***

Egin behar dena:

- Hitz berriak atzeman, ikasleen mailaren arabera:

1- animaliak, lekua, adjektiboa (nola den animalia)

2- animaliak, lekua, adjektiboa (nola den animalia), aditza (ekintza), onomatopeia

- Hitz berriak idatzi ikasiak izan direnen ordez

Nun atzematen ahal dira hitz horiek?

# 5. urratsa: hitzak atzeman










Ikasgelako tresnetan:
-liburuak
-jokoak
- afixaketa
…







Irudi-hitzak:
-animaliak
-lekuak
-ekintzak
-adjektiboak
…

**Euskara bigarren hizkuntza baita ikasle gehienentzat, irakasleak ikasleen proposamenetan hitz selekzio bat egiten ahal du.**

**Joko bat antolatzen du.**

**Hitz-irudiak kutxetan dira, ikasleen mailaren arabera.**

**1**

Sagu txiki , sagu maite
Zilotxoan gorde zaitez.
Gatuak ikusten bazaitu
Kriskras , kriskras ,
Janen zaitu !
*Ez nau jango !*
*Jango zaitu !*
*Ez nau jango !*
*Jango zaitu !*

3 kutxa: animaliak, lekuak, adjektiboak (nola den animalia)

**2**

Sagu txiki , sagu maite
Zilotxoan gorde zaitez.
Gatuak ikusten bazaitu
Kriskras , kriskras ,
Janen zaitu !
*Ez nau jango !*
*Jango zaitu !*
*Ez nau jango !*
*Jango zaitu !*

5 kutxa: animaliak, lekuak, adjektiboak (nola den animalia), aditzak (ekintza), onomatopeiak (edo animaliaren oihua)

# 6. urratsa: Kantuñoa berria idatzi

**Jokoa**

- Ikasle batek hitz-irudi bat hartzen du kutxa bakoitzean. Kantuñoa berria atzeman behar da hitz horiekin. Zuzenketak taldean egiten dira erran arau.

- Trebatzen dira Kantuñoa berria erraten.

- Kantuñoa berriz erraitean, Irakasleak idazten du ikasleen aitzinean. Galdegiten ahal du nola idatzi behar duen eta elez adierazten du idazten duena.

# 2.maila: Kantuñoa berria gogoz badakitelarik, ikasleak entseatzen dira falta diren hitzak idazten.







**Laguntzeko ikasgelako afixaketa:**

- **Fonologia**
- **Alfabetoa**

Ikus dok *Essai d'écriture*

# Adibideak

Euli betza , euli maite

Etxean gorde zaitez.

Igelak ikusten bazaitu

Kriskras , kriskras ,

Janen zaitu !

*Ez nau jango !*

*Jango zaitu !*

*Ez nau jango !*

*Jango zaitu !*

Xixari luze , xixari maite

Belarrean gorde zaitez

Xoriak ikusten bazaitu

Briu Brau , briu brau

Harrapatuko zaitu !

***Ez nau harrapatuko !***

***Harrapatuko zaitu !***

***Ez nau harrapatuko !***

***Harrapatuko zaitu !***